

ARGIA.EUS/LARRUN

MONIQUE WITTIG

LESBIANA ETA FEMINISTA SUBERTSIBOA



LARRUN #285

'EMAKUME' SUBJEKTURIK GABEKO FEMINISMOAREN AITZINDARI

EGILEA | **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

"**E**makume ez da sortzen" zioen 1978an Monique Wittigek, 30 urte lehenago bazterrak irauli zituen Simone de Beauvoiren "emakume ez da sortzen, egin egiten da" esaldia bereganatuz. Jendarteak genero-eraikuntzaren baieztapenaren liseriketa oraindik egiteke zuela, urrats bat aitzinago kokatu zuen berea: sexu kategoriak ere eraikuntzak dira. "Pentsamendu heterozuzena" –Straight Mind– kontzeptu politikoaren teorizatzaileen artean dugu.

Orain dela hogeit hamar urte zendu zen, urtarrilaren 3 batez, bihotzekoak jota. Bi hamarkada geroago datoz orduan jaso ez zituen aitortzak,

eskertzak eta kontsiderazioak. Bizirik zela, zubi guti eta pareta anitz kausitu zituelako –oztopo gogorrenak lagun feministenak zituen, iraultzarako subjektu gisa irudikatu zituen horienak–.

Denborak arrazoi eman dio –edo denboraldi luze hori behar izan da sexu-eraikuntzaren ideari lekua egiteko–. Isilduak edota irainduak izandako bere proposamenek aitzina egin dute, teoria feministak bideratuz eta 1990eko hamarkadan garaturiko queer pentsamenduari ere bidea irekiz. Sekula baino gehiago bizirik da Monique Wittigen pentsamendua. LARRUN bideratu diogu, ezezagunegia den hori doi bat ezagunago egiteko.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.826 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOIA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2023ko maiatzaren 28a


Monique Wittig (1935-2003). Lesbiana eta feminista. Lesbiana erradikala eta feminista materialista; lesbiana materialista eta feminista erradikala. Pentsalaria eta idazlea; idazlea eta pentsalaria. Esku artean duzun LARRUNaren hezurduraz gogoetatzen dabilen kazetariak ez daki, ordea, zertarik hasi: pentsalariaren hausnarketa iraultzaileen azalpenekin ala literaturan egindako ekarpen apurtzaileen aurkezpenekin. Azkenean, joan-jinak izanen dira, biak eskuz esku zeramatzalako, fikzioa ere bere gogoeta politikoa gorpuzteko lanabes zuelako. Zioen “gerrarako makinatzat” zuela literatura. Bere bataila: sexu-kategorien suntsiketa, eta hortik heteroarauaren –“heterosozializazioaren”– desagerpena. Hitzen botereaz kontziente, idazketa kokapen horretatik bideratzen zuen: “Hizkerak ez du errealitatea islatzen, errealitatea bortizki galkatzen eta hezurmamitzen du”.



**IRAKURLE, GOGOAN
HARTU LE CORPS LESBIEN
[“GORPUTZ LESBIANOA”]
ARGITARATZEN
DUENEAN
HOMOSEXUALITATEA
BURUKO GAIXOTASUNEN
ZERRENDAN SARTUA
IZATEAZ GAIN,
LEGALKI DELITU ERE
DELA FRANTZIAKO
ESTATUAN**

**“LESBIANAK EZ DIRA
EMAKUMEAK”**

“Lesbianak ez dira emakumeak” dugu seguruenik Wittigen gogoetak eta ekintzak laburbildu ditzakeen bere esaldirik argiena. 1978an New Yorkeko Barnard College fakultatean eskaintako The Straight Mind konferentzian zabaldu zuen, eta 1980ko otsailean ekarriko zuen lau urte lehenago utzitako sorterra Frantziara, *Questions féministes* aldizkariaren bitartez, *La Pensée Straight* izenburupean. Bere liburu ezagunetarikoa osatuko zuen hitzaldi horretatik tiraka: *The Straight Mind* (1992) [euskaraz ere irakurri dezakeguna: *Pentsamendu heterozuzena* (Susa, 2017)]. Wittigek dio lesbianak ez direla emakumeak, gizon batekiko harreman sozial espezifikoa duelako “emakume” kategoria bermatzen. Hori horrela, heterosozialitate “libratuz”, lesbianek emakume kategoria deuseztatzen dutela izan da bere pentsamenduaren muina.



Mwen ESPARRU LITERARIOAREN BAIMENAREKIN

Sexu-kategorien ezabaketaren proposamen iraultzailea hezurmamitzeko lanabes zuen fikziozko literatura Wittigek.

Generoaren eta sexuaren arteko bereizketa ez zuen onartzen, horrek erran nahi duelako batetik badugula sexu soziala, eraikia eta kulturala –generoa–, deseraiki beharrekoa, eta bestetik, errealtate natural eta biologiko bat –sexua–. Idatzi zientifikoen zein fikziozkoen bidez, naturalizazio hori gezurtatzen aritu izan da, sexu kategoriak anatomiari lotzeak gizonaen eta emakumezkoen arteko bereizketaren, hierarkizazioaren eta hortik zapalkuntzaren naturalizazioa dakarrelako. Bistan da, sistema erreproduktiboan diren aniztasunak ez ditu zalantzan jartzen, baina, azkenean, digestio-aparatuari begira jarri arreta bezainbeste beharko luke gorputzeko atal horrek. Funtsean, ez dezala guzia bidera eta baldintza.

Hortik tiraka, heterosexualitatea politizatu beharra aldarrikatzen zuen, sistema politiko gisa kokatuz, zeinetan gizonaen klaseak emakumezkoena zapaltzen duen. Hots, heterosexualitatea ez dela desira pertsonal soila: “Sexurik ez da. Sexua bada zapaldua eta zapaltzailea badagoenean. Oprezioak dakar sexua, ez da alderantzizkoa”, irakurri dezakegu *Pentsamendu heterozuzena*-n. Lesbianak emakumeak ez direla dioen postura hortik bideratzen zuen, klase-zapalkuntza horretatik aske bizitzeko aterabide gisa planteatuz. Zentzu beretik, *On ne naît pas femme* (“Emakume ez da sortzen”) idatzia publikatuko zuen *Questions féministes*-en, Simone de Beauvoiren esaldi ospetsua –“emakume ez da sortzen, egin egiten da”– berera moldatuz: “Emakume ez da sortzen” eta puntu.

Irakurle, gogoan hartu 1980an garaia. Mentalitateak inarostera etorritako de Beauvoiren esaldiak 30 urte besterik ez dituela eta oraindik bide luzea duela egiteko: antolaketa soziologikoa, ekonomikoa, politikoa zein kulturala generoan oinarrituriko binarismoak bideratzen ditu, eta norberaren baitan zein jende-harremantetan eragin handia du. Horrez gain,



**“SEXURIK EZ DA.
SEXUA BADA ZAPALDUA
ETA ZAPALTZAILA
BADAGOENEAN.
OPRESIOAK DAKAR SEXUA,
EZ DA ALDERANTZIZKOA”**

(WITTIG, THE STRAIGHT MIND)




**“WITTIGEK BESTE ZERBAIT
ESKANTZEN DIGU:
ZEIHARKA DOAN IRAKURKETA
LESBIANOA, POLITIKOA ETA
LITERARIOA. HAIZEAREN
NORABIDEAREN KONTRA
DOANA, ARAUEI ETA OHITUREI
BIZKARRA ERAKUTSIZ”**

EMILIE NOTERIS

Frantziako Estatuan homosexualitatea oraindik buruko gaixotasunen zerrendan sartua da, eta gainera, legalki delitu gisa kontsideratua da. 1981eko ekainaren 12an kenduko zuten gaixotasunen zerrendatik, eta urte berean desagertuko ziren polizia-prefekturako “pederasta-zerrendak” zeinetan markatuak ziren gayak eta lesbianak. 1982ko abuztuaren 4an homosexualitate-delitu indargabetu zuen François Mitterrand lehendakari sozialistaren gobernuak. Testuinguru horretan errazki irudikatu dezakegu Wittigen analisisiek eta proposamenek eragindako ez-ulertuak baita hase-reak ere.

Nola ez, berdin-berdin erraza zaigu imajinatzea 1973an publikaturiko *Le corps lesbien* (“Gorputz lesbianoa”) liburua esku artean topatzeak zer nolako harridura, indarra, argibidea eta salbamendua ekarriko zion orduko lesbianari ala gayari. Ondokoa adierazi zuen publikatzerakoan: “Tematikan, hiztegiaren eta testuran osoki lesbianoa izanen zen liburu bat idatzi nahi nuen; liburu lesbianoa hastetik bururaino, azaletik atzeko orrira arte”. Gorputzaren eta sexualitatearen berriazketa kausitzen dugu liburuan, beharturiko heterosexualitateak modelaturiko hitz, ikuspegi, anatomiaz eta istanteetatik urrun.

Horra hemen *Pentsamendu heterozuzena* liburuko pasarte bat, bere ikuspegia bere hitzetatik jasotzeko: “Nik ezagutzen ditudanetan, lesbiana da sexu-kategorietatik harago (emakume eta gizon) dagoen kontzeptu bakarra, subjektu izendatua (lesbiana) ez baita emakumea, ez ekonomikoki, ez politikoki, ez ideologikoki. Honatx zerk egiten duen emakume bat: gizon batekiko harreman sozial espezifiko batek, joputza deitu dugun harreman batek; eginbehar pertsonal eta fisikoak ez ezik eginbehar ekonomikoa ere ekartzen dituen harreman batek (“bizileku behartua”, etxe-lanak, ezkontzako eginbeharrak, haurrak mugarik gabe izatea, eta abar). Lesbianek, heterosexual bihurtzeari edo irauteari uko eginez, ihes egiten diote harreman horri. Gure klasearen desertoreak gara, hala nola esklabo amerikar iheslariak, esklabotasunari ihes egin eta askatzen zirenean. Emakumeontzat, premia absolutua da hori; iraungo badugu, gure indar guztiarekin deuseztatu beharra daukagu emakumeen klasea, zeinaren bidez gizonak emakumeez jabetzen baitira. Hori lortzeko, heterosexualitatea deuseztatu beharra dago, ezinbestean, gizonak emakumeak zapaltzen dituzten sistema sozial bat den aldetik; zapalkuntza



29 urte zituela Medicis sari ospetsua irabazi zuen *L'Opoponax* bere lehen eleberriarekin. Fikziozko literaturaz gain, hainbat saiakera idatzitakoa da.

M/Wen ESPARRU LITERARIOAREN BAIEMENAREKIN

materialistak erabateko zapalkuntza-sistematzat du patriarkatua. Kapitalismoa eta patriarkatua emakumeen klasea kaltetzen duten antolamendu sozialen oinarrian daude eta horri aurre egin ahal izateko, ezin zaio esparru produktiboari (lana) bakarrik kritika egin. Ikuspegi horrek harremanen ardatzetik bideratzen du bere irakurketa: gizonak eta emakumeak klase bezala kontsideratzen dira, burgesekin eta proletarioekin analogia eginez”.

Bi kokapen horietatik –lesbiana subjektutik eta feminismo materialistatik– mintzo zen Parisen osatu berri zuten MLF Emakumeak Askatzeko Mugimenduaren (Mouvement de Libération des Femmes) asanbladetan. 68ko Maiatzak ekarriko zuen MLFren sorrera, gertakari ezkertiar iraultzaile horren baitako kolektiboetan ez zelako emakume izategatik jasandako opresioen borrokatzeko lehen tasunik.

1970ean osaturiko MLF izan zen Frantzian mugimendu feminista lorarazi zuen eragile nagusia. Pariseko karriketan milaka emakume batzen zituen, Sorbona Unibertsitateko anfiteatroak betetzen zituzten asanbladen kari, eta nola ez, Parisetik haratago zabaldu zuen feminismoa

hori zuritzeko, sexuen arteko desberdintasunaren doktrina sortzen duen sistema den aldetik”.

FEMINISMO MATERIALISTAREN OINARRIAN

Ikuspegi materialista zuen eta bera dugu Frantziako Estatuan loraturiko feminismo materialistaren oinarrian. Wittigekin batera, ezin aipatu gabe utzi Christine Delphy, Nicole-Claude Mathieu, Colette Guillaumin, Paola Tabet, Monique Plaza eta Emmanuèle de Lesseps, guziak ikuspegi horren teoritzaileak. Topatu ditzakegu beraien gogoetak *Questions Féministes* aldizkariaren artxiboetan. 68ko Maiatza-

ren biharamunetan, ikuspegi marxista zabaldurik zen Parisko mugimendu sozial ezberdinetan eta beraiek ere hortik begiratzen zioten emakumeen zapalkuntzari eta askapenari.

Elèonore Lipenardek eta Marylène Liebererek idatzitako *Théories matérialistes du genre* (“Generoaren teoria materialistak”) artikulua lagungarria zaigu pentsamendu honen nondik norakoak xehekiago identifikatzeko. Ondoko definizioa dakarte: “Ortodoxia marxistarekin hautsiz (zeinen arabera kapitalismoaren bukaerarekin zapalkuntza mota guzien bukaera daukagun, emakumeek bizitakoa barne), 1970eko hamarkadako planteamendu feminista marxistak eta



TIRABIREK GAINA HARTURIK, MLF DESAKTIBATU ZEN 1970EKO HAMARKADA BUKAERAN ETA WITTIGEK, PERTSONALKI, PARISETIK ETA FRANTZIATIK AEB-ETARA LEKUTZEA ERABAKI ZUEN

–Ipar Euskal Herriko mugimendu feminista ezin daiteke ulertu kolektibo hori kontuan hartu gabe–. Baina ezin laudorioetan bakarrik gelditu. Feministoi inbidia eta harrotasuna sortzen dizkiguten argazki zuri-beltzek beraien arteko eztabaidak, desadostasunak eta aharra zalapartatsuak islatzen balituzte, begietako mina ukanen genuke.

AEB-ETARA IHESI, GOGOETARAKO ESPAZIO BILA

MLFren baitako desadostasunei dagokienez, arantza nagusien artean zuten Wittigen irakurketa, mugimendu feministaren subjektua bera –emakumea– zalantzan jartzen zuelako. Gehiengoan ziren feminista heterosexualek ez zuten beraienari hortik begiratzeko jarrera irekirik. Oro har, ez zen lesbianen bizipenentzako, begiradarentzako eta hausnarketentzako lekurik. Emakume zuri, heterosexual eta klase ertain-altukoak ziren gehiengoan eta haien kokapenetik haratago ziren errealitateak borrokan integratzeko epelkerian ziren.

Beste eztabaida nagusia zuten materialisten eta Psychanalyse et politique –*psychépo* laburduraz eza-gunagoa– taldekoen artekoa. Antoinette Fouque zenak bideraturikoa zen azken hau, diferentzialismotik, esentzialismotik tiraka osaturikoa: sexuen arteko desberdintasuna aldarrikatzen zuen eta lege patriarkaletik at kokaturiko bestelako emakume subjektu bat osatzeko helburuari segi zebilen. Nola ez, sexu-kategoriaren bukaeraren alde zebilen Wittigen irakurketarekin erabatekoa zen talka.

Lesbiana gisa ez zuten lekurik ez mugimendu feministan, ezta gayak gehiengoan ziren homosexualen kolektiboetan ere. Hori horrela, beraien artean antolatzen hasi ziren aski fite. Les Gouines Rouges –“Bollera Gorriak”– sortu zuten 50 bat bollerek 1971ko udan –izena irain baten berreskurapenetik dator, manifestazio batean MLFaren *Le torchon brûle* ka-



1976an sorterrria utzi eta AEBetan kokatu zen, Sande Zeig maitalearekin. Orduz geroztik elkarren ondoan eraman zuten bizia.

ADELE PRANDANI



**“BERE GARAIAN
EMAKUMEEK IDATZITAKO
LIBURU GEHIAGO
ARGITARATZEAK EZ DU
ERRAN NAHI EGOERA
ALDATURIK ZELA:
KRITIKA LITERARIOAK
ERREAKZIONARIOA ETA
MASKULINISTA IZATEN
SEGITZEN ZUEN”**

EMILIE NOTERIS

zeta banatzen zebiltzala, paseatzen zebilen gizon batek ikusi eta “hara! Bollera gorriak!” oharra gora-gora erran izanetik–. Buru-belarri inplikatu zen Wittig, baina hor ere ez zuen espero zuen grina kausitu eta hiru urteren buruan desagertu zen taldea.

Tirabirek gaina harturik, MLF desaktibatu zen zortzi-bederatzi urtetara. Wittigek, pertsonalki, Parisetik eta Frantziatik lekutzea erabaki zuen. Bortitza izan zitzaion feminista heterosexualek eta *Psychepo* taldekoen jarrera, eta ezin jasana parean zuen oztopoa. Ondokoa irakurri dezakegu Adrienne Rich lesbiana poeta eta teorizatzaile ezagunari igorritako gutun batean: “Adrienne estimatua, [AEBetara] heltzerakoan Parisko bizi politikotik ihes egin nahi nuen. Suntsitua nintzen. (...) Infernura egindako bidai baten pareko izan dira zazpi urte horiek (1968-1975)”. Bere burua babes-teko eta bere teoriari bidea egin ahal izateko utzi zituen 1976an Paris eta bere mundua. Jasandako min eta oztopoa aipatzen ditu 1963 eta 1985 artean idatzitako ipuinak biltzen dituen *Paris-la-politique* (“Paris-politik-a”) liburuan. 1999an publikatu zuten eta ondokoa erran zion Claire Devarrieux kazetariari: “Parabola bati esker distantzia markatu dezakezu. Talde politiko orotan, edozein dela ere, beti funtzionamendu bera daukagu: ez diogu etsaiari eraso egiten, baizik eta hurbilena dugunari, eta horrek min

egiten du, hil dezake. Horren eta horrek jendeetan eragin dezakeenaren parabola badago [liburuan]. Substantzia politiko horretan murgildu naizen aldi oro ametsetaraino sartu izan zait, gillotina ezagutu dut, buruaren mozketak. Afrusa izan da”.

Sande Zeig maitalearekin kokatu zen AEBetan, eta han eginen zuten beraien bizia, Frantzia ez bezala, bere pentsamenduarentzako espazioa jasoz. “Utopia lesbiano bat eraikitzeke asmoz, hitzez hitz, kontzeptuz kontzeptu”, lau eskuz idatzitako liburua osatu zuten hilabete batzuk lehenago, Greziako kostan pasatako oporraldietan: *Brouillon pour un dictionnaire des amantes* [“Maitaleen hiztegi baten zirkorria”]. Maletan liburu bakar batzuk harturik elikatu zuten obra –Sir James George Frazer-en *The Golden Bough*, Helen Diner-en *Mothers and Amazons*, Saforen poema batzuk eta Biblia–. Idazketa fasea gozamina izan bazitzaie, emaitza, ordea, bestelakoa izan zitzaie. Bien izenpean publikatu beharrean, Monique Wittigen izenean publikatu nahi zuen Grasset argitaletxeak, eta zuri nahi zuten liburuaren gibelaldea beraien onespenerik gabeko testu batekin inprimatu zitzaie. Ondokoa idatzi zieten argitaletzekoei: “MWek ez du liburu hori bakarrik idatzi. Guretzat, Amazonak ez dira mitologiaren parte. Lesbianon mundu imajinarioa ez da inbentariatzekoa. Gorputzeko atalen ospakizunerako baldin bazen, liburuz tronpatu zarete. MW ez da bakarrik *L’Opoanax*-en egilea, bada ere *Les Guerrillères*-ena et *Le Corps lesbien*-ena. ‘Literatura femininoa’ izendapena bera dugu gaitzesten”.

Guzia iraultzen zuen Wittigen pentsamenduak eta oihartzun guti zuen. Zabalpenerako espazioa jasoz ere, editoreek ez zuten osoki asmatzen bidea. Fede txarrez ez bazen ere, Wittigek hautu politikoz bideraturiko osagai anitzen ondotik pasatzen ziren, azkenean, pentsamendu heteroarautik irakurtzen zutelako.

PROPOSAMEN POLITIKOA FIKZIOTIK ZABALDUZ

Bere fikziozko liburuak aztertuz jaso ditzakegu bere helburuak eta tirriak. Wittig liburuaren idazle Emilie Neterisek dio “etengabeko genero nahasketan” zela. Horregatik ez zaio egokia iduritzen Frantzia pasatako garaia sorkuntza literarioari eta AEBetan iragandakoa proposamen politikoari lotzeko joera. Ondokoa nabarmendu du: “Teorikoa eta literarioa ez bereiztea da [Wittigen] erronka politikoak, hori landu du bere obran, modu ausart eta ohargarrian. Bere ideia da argi ukatea testuaren idazketa estiloak eta formak filosofia-mailan dakarrena bezainbeste balio dutela”.

Bere iritziz, beharrezkoa da, halaber, Wittigen lana ‘Eleberri Berria’* deitu mugimenduaren baitan kokatzea: “Tradizioetik ‘orga-hatzetara’ pasa ziren idazle horiek, Claude Simonen irudiari segi. Askok gustatzen zait errepede nagusitik istorioaren bazterretara pasatzearen irudi hori. Pertsonaien psikologiaren garapenetik, ondo landutako intrigatik, amaiera eta beste bide erosoetatik aldentzeko nahia bazuten. Literaturaren izarra normatibo eta estandarizatutik aldentzeko nahia. Irakurketa-ibilbide markatuetatik aldentzeko nahia. Wittigek beste zerbait eskaintzen digu:



‘EMAKUMEZKOEN IDAZKERA’ ZEIN ‘IDAZKERA FEMENINOA’ IZENDAPENAK IRUZURTZAT ZITUEN WITTIGEK, EMAKUMEAREN KLASA ZAPALDUA BERRESTEKO BIDETZAT ZITUELAKO

zeiharka doan irakurketa lesbianoa, politikoa eta literarioa. Haizearen norabidearen kontra doana, araei eta ohiturei bizkarra erakutsiz”.

“Emakumezkoen idazkera” zein “idazkera femininoa” izendapenak iruzurtzat zituen, emakumearen klase zapaldua berresteko bidetzat zituelako. Ondokoa zioen: “Ez dago emakumezkoen literaturarik, ez dago.

* 1950eko hamarkadan muntatu eta hogeitau urte iraun zuen mugimendu literarioa da. Ohiturazko eleberriaren ezaugarriak ukatu eta idazkera berriak zabaldu zituzten.



Susa argitaletxeak 2017an euskaratu zuen *The Straight Mind* obra, Pentsamendu heteroaraua izenburupean.



Hainbat hizkuntzeta itzuliak dira Wittigen obrak. Adibidez, Wittig eta Zeigen artean idatzitako *Brouillon pour un dictionnaire des amantes* gaztelera berri du Continta Me Tienes argialetxeak.

Literaturan ez ditut emakumeak gizonetatik bereizten. Bat idazlea da, edo ez da. Espazio mental horretan sexua ez da erabakigarria. Askatasun espazio bat izan behar dugu. Hizkuntzak ahalbidetzen du. Sexu-kategoriarik ihes eginen lukeen neutrala eraikitzen dugu bidea". 2010ean publikaturiko *Chantier littéraire* ("Xantier literarioa") obran dakar literaturari eta hizkerari buruz zuen hausnarketa.

Erabiltzen dituen estrategia politiko eta literarioen artean, azpimarragarriena genuke izenordainen erabilerarena: "Nire liburu guzien gai eta material dira izenordain pertsonalak eta inpertsonalak. Hitz horien bitartez ezartzen eta kontrolatzen da generoa hizkuntzan, baina, berdin-berdin, [generoaren] erabilpena zalantzan jarri daiteke, baita ezeztatu ere hitz horien bitartean".

29 urte besterik ez zituela, Medicis sari ospetsua ekarri zion 1964ko *L'Opoponax* bere lehen eleberriak. Haur batzuk ditu protagonista, bereziki neska ttipi bat Catherine Legrand izenekoa. Haurren gogoetak ditugu deskubritzen, beraien mintzairan



Lesbiana aktibista amorratua zen Wittig, besteak beste, Les Gouines Rouges (Bollera Gorriak) taldearen sortzaileetan izan zen. Eskuineko argazkian, kolektibo horren topaketa bat.



**HETEROSEXUALITATEA
POLITIZATU BEHARRA
ALDARRIKATZEN ZUEN,
SISTEMA POLITIKO GISA
KOKATUZ, ZEINETAN
GIZONEZKOEN KLASEAK
EMAKUMEZKOENA
ZAPALTZEN DUEN.
HETEROSEXUALITATEA
EZ DA DESIRA
PERTSONAL SOILA**

eta hiztegian sentitzen dugula denboraren/adinaren aitzinamendua. Garaiko kritika literario arras gutik azpimarratu zuten liburuan dagoen maitasun harremana. Egileak berak ohartarazi zuen elkarriketa batean: "Bi neskato ttipien maitasun-istorioa dago (...) baina lesbia-

nismoaren alde hori erabat isilean atxikia izan da". Obra horretarako *on* izenordainaren hautaketa horrela azaltzen zuen: "Generorik eta kopururik gabeko izenordain horri esker eman nezakeen izaeren berri, sexu banaketa sozialetik kanpo kokatuz; liburuak irauten dueino erabat deuseztatuz banaketa hori". *L'Opoponax* "maisulana" da, "miresgarria eta oso garrantzitsua", Marguerite Durasen hitzetan.

1969an plazaraturiko *Les Guerrillères* obran genero ezeztapenarekin segitu zuen, aldi horretan *elles* izenordaina orokortuz, azkenean, genero marka ezabatzeraino. Lesbianez osaturiko komunitate baten egunerokoa kontaktzen du, beraien legenda, ohitura eta sinesmenei lekua utziz, eta beraien askatasunaren parean dituzten gizonen kontrako borroka armatua deskribatuz. Sexu banaketatik at izanen litzatekeen jendarte bat proposatzen du. Obra hori "utopia" edota "epopeia" gisa sailkatu zuen Wittigek berak. Nonbait, 68ko Maiatzatik atera berri, MLFren osaketarekin espero zuen iraultza proposamena dugu.



SEXUAREN NATURALIZAZIOA GEZURTATZEN ARITU DA, SEXU KATEGORIAK ANATOMIARI LOTZE HORREK GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN ARTEKO BEREIZKETAREN, HIERARKIZAZIOAREN ETA ZAPALKUNTZAREN NATURALIZAZIOA DAKARRELAKO

Mwen ESPARRU LITERARIOAREN BAIMENAREKIN



Hari bat dugu obren artean eta bere barne-gogoeten bilakaera kausi dezakegu liburu batetik bestera aitzinatuz. *L'Opoponax* (1964) – kategorizaziorik gabeko kolektibo bat–; *Les Guerrillères* (1969), *Le Corps lesbien* (1973) eta *Brouillon pour un dictionnaire des amantes* (1975) – bide beretik, lesbianen arteko komunitatearen proposamena–; 1985ean *Virgile, non* (“Virgile, ez”) –sistema patriarkalak emakumezkoiei bideratu indarkerien kontakizuna–; eta azkenik, *Paris-la-politique* (1999) –militantzia, eta zehazkiago feministen artean topaturiko botere-harremanei buruzko irakurketa kritikoa–.

AITORTZA, BERANDUEGI

2003ko urtarrilaren 3an zendu zen, 67 urte zituela, bihotzeko batek eramanik. Hogeitaz hamar urte pasa direla, sekula baino gehiago bizirik dugu bere pentsamendua. Orain jasotzen ditu bizirik zela errezibitu ez zituen eskerak eta errekonozimenduak. Horren erakusle gisa dugu Kaliforniako Berkeley eta Suitzako Genevako Unibertsitateek *Twenty Years Later* (“Hogeitaz hamar urte geroago”) nazioarteko kolokioa

antolatu izana Wittigen heriotzaren hogeigarren urtemuga kari –ekainaren 27an eta 28an emanen zaie bukaera jardunaldiei Genevatik–.

Kuriositatez Euskaldunon Egunkaria-ren 2003ko urtarrileko hemerrotekari begiratu dio kazetariak, baina ez, ez zitzaion lekurik bideratu bere heriotzari –ezta aitzinetik ere, bere hausnarketari–. Baina, euskaldunon isiltasuna ez zen salbuespena izan. Ia hogeitaz hamar urteko berantarekin datoz aitortzak, baita sorterriz zuten Frantziako Estatuko esfera literario, unibertsitario eta feministan ere.

Susa-ri eskerrak, 2017az geroztik dugu Wittigen *Pentsamendu heterozuzena* euskaraz irakurtzeko aukera. Bere gogoetak inoiz baino biziago segitzen duenaren marka dugu ere Eva Perez-Ponsek Lisipe bildumaren baitan plazaratu berri duen *Erresistentziarako gorputzak: bollerak* –bere iritzia jaso dugu hamargarren orrialdean–. XXI. mende hastapeneko feminismoan, transfeminismoan, queeran eta LGBT mugimendu politikoan topatu ditzakegu bere ekarpenak; izan bere horretan –gaurkotasun handia izaten jarraitzen dutelako–,

izan beretik loraturiko teoretan –ezbinarismoaren aldeko mugimendua, demagun–.

Wittigek utzitakoaren eta jasotakoaren arteko hozka ulertu ahal izateko, ordungo errealitatean kokatu beharra nabarmentzen du Wittig liburuaren idazle Noterisek: “Bere garaian aurrekoetan baino emakumeek idatzitako liburu gehiago argitaratzeak ez du erran nahi egoera aldatua zela” kritika literarioak erreakzionarioa eta maskulinista izaten segitzen zuen. ‘Atsoen idazkera’ nabarmendu zuten *L'Opoponax* aipatzerakoan, Marguerite Durasek trufak eta gutxiesteak jasotzen zituen eta Violette Leduc ‘lizuntzat’ zuten. Orduan, pentsa! Lesbianismoa gehiegizkoa zen gizonen eskuetan zen esparru horrentzat”.

Parisko Père-Lachaise hilerrian ehortzia da. Gizon ospetsuei (Jim Morrison, Honoré de Balzac, Chopin, Oscar Wild...) lotu ohi dugun kanposantu horretan dugu, besteak beste, Sarah Bernhardt, Colette, Rosa Bonheur eta seguru heteroarauak zokoraturiko edo isilarazitako beste lesbiana batzuen artean ere. ●

... eta hala gorpuzten dugu Wittigen pentsamendua



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Ume nintzela ez ezkontzeko eta umerik ez izateko gomen-datu zidan amak. Orduan ez nuen ulertu, baina uste dut ni ba-besteko izan zuen adierazpen formarik zintzoena izan zela hura. Nerabezaro berantiarrean hasi nintzen inguratzen ninduen parterik handienarekin deseroso sentitzen eta deserosotasun horiek nondik zetozen ulertzen. Horietako bat izan zen hainbat espaziotan presente zegoen gizotasunaren eredu errepresiboa, hari esker konturatu nintzen heterossexualitatea ez zela niretzat nahi nuena. Geroago erabaki nuen bollera izango nintzela.

Ez dut ukatuko erabaki horrek apurketa bortitzak ekarri zizkidanik garai horretako ingurune hurbilarekin, eta liburuetakoa erreferenteak ez zirela nahikoa apurketen hutsunea betetzeko, jarraitu nahi nuen norabidean ipar izan arren. Baina apurketek hasiera berriak dakartzate sarri, eta horrela, berandu baina, sartu nintzen lehenengoz bollera talde batean. Adin desberdinetako bollarak geunden hor; kaleak hartzen genituen asanbladak egiteko eta heteroentzat

egindako espazioak okupatzen genituen aisialdi eredu desnormalizatzeko helburuarekin. Talde horretan zeuden zaintza eta barne dinamikak ez nituen aurretik inolako militantzia taldetan aurkitu; gorpuzta zegoen jarrita diskurtsoan eta *pertsonala politikoa da* premisa ez zen lelo abstraktu bat, gure egunerokotasuna baizik: taldeak betetzen zuen normaltasunetik ihes egiteak uzten zuen hutsunea. Familia birkonfiguratu genuen.

Izenik gabe, ez dago izanik, eta gu bollarak ginen, ez emakume homosexualak. Gorpuzten genuen bollera ez zen orientazio homosexual bati lotutako identitate bat, baizik eta praktika eta kontzientzia jakin bat zuen subjektu politikoa. Transmaribibollooi askotan gertatzen zaigu eskura ditugun hitzekin ezin ditugula gure errealtateak deskribatu, hitz horiek gizarte bitarrak sortu dituelako eta logika heterosexual bati jarraitzen diotelako. Hitz berriak sortu, edo historikoki gu markatzeko erabili direnak okupatu eta esanahia aldatzen diegu normaren parte izan nahi ez dugu-

la ozen esateko, azken batean, hitz horiek eman baitigute existentzia. Bollera hitza dugu horietako bat.

Bollera izatea hautu politikoa da, hala zioen Monique Wittig handiak. Heterossexualitatean oinarritutako tradizio oso bat dugu gure gain, bizi-eredu desiragarrienak ere heterossexualak dira, eta modu heterossexual batean pentsatzen jarraitzen dugu horren ondorioz. Azken hori dugu gure zapalkuntzaren parte hein handi batean. Baina posible dugu alde zitalera pasatzea eta hura desiragarri bihurtzea, Wittigek bere lan teoriko eta literarioan egin bezala. Instituzioek definitzen dute hierarkia sexualaren bitartez LGTB gorpuztuzuzena, eta horren ordainetan prekarizatzen gara praktika horretan sartzen ez garenok. Ikusgarritasuna baino, erreferente zital positiboak behar ditugu haien eredu jarraitu ahal izateko.

LISIPE bildumarekin ekarri genuen 2017an Wittigen *Pentsamendu heterozuzena* euskarara, eta bada modu bat haren diskurtsoa geure egiteko eta bollera gorpuzten jarraitzeko. ●

DOMINIQUE BOURQUE

Ottawako unibertsitatean irakaslea

“Wittigen ustez, idazleen betebeharra da boteretsuenen bahiketatik askatzea hizkera”

Aspaldian dabil Monique Wittigen testuak eta diskurtsoak aztertzen Ottawako unibertsitatean irakasle den Dominique Bourque. 2000 urtean aurkeztu zuen *Vers une théorie du contre-texte: La subversion formelle dans l'oeuvre de Monique Wittig* (“Kontra-testua-ren teoria baterantz: Monique Wittigen obraren subertsio formala”) tesia. Wittigen sorkuntza literarioaz aritu gara, pentsalari feminista eta lesbianak hizkerarekin eta idazkerarekin zuen harremanean zentratuz solasaldia.





**HIZKERA FORMA
MATERIAL BAT DA,
GUTI ALA ASKO
DENTSOA EDO ZALUA
DENA, IZPIRITUAK
KONTROLATZEKO
ETENGABEKO
GUDU-ZELAIA DENA**

■ **Subertsiboa da Monique Wittigen pentsamendua. Gauza bera erran dezakegu bere literaturaz.**

40 urte pasa badira ere, sistema heterosozial handiaz duen analisiak oraindik ere subertsibo izaten segitzen du, eta seguruenik horrela izaten jarraituko du sistemak iraunen dueino. Pentsamendu heterozuzena osatzen duten diskurtso multzo bati esker bideraturiko "heterosexualitatearen erregimena" sistema unibertsala dela dio. Talde sozial ezberdinduei –ezberdin bezala ikusitakoei– bideratzen zaizkien jokaera konkretuei begiratzera gomititzen gaitu bere saiakeren bidez. Elkar-bizitzarako modu berrien imajinazioa alde batera ez uzteko deia luzatzen digu. Ez zituen onartzen aldaketa utopikoa dela dioen ideia orokortua eta dagoena onartu beharra daukagula dioen mezua. Bere iduriko espirituetan hasten dira aldaketa sakonak.

Wittigentzat, lesbianismoak agerian uzten du erregimen honek adierazten duen mistifikazioa, zeinek sexuen polarizazioa eta "osagarritasuna" instituzionalizatzen duen (besteak beste, ezkontzaren, familiaren, filiazioaren eta sozializazioaren bidez). Bikote heterosexualaren aginduzko ereduari uko eginez, emakumezkoen autonomia agerian utziz, eta gizonekiko eskatzen zaien harremanari bizkarra erakutsiz, lesbianismoak erregimen honen oinarria bera du mehatxatzen. Horregatik dira heterojendarteetan lesbiana itzalean atxikiak.

■ **Bere idazkera ere subertsiboa da. Zein elementu nabarmenduko zenuke?**

Ohikoan zokoratua edota isildua den ikuspegiaren unibertsalizazio parodikoan dugu Wittigen idazkeraren originaltasuna. Perspektibaren iraulketa horrek ematen die arrotasun kutsu bat ohikoan ezagun ditugun unibertsoei. Idazleak bideratzen digun mundu hori ez da erabat gurea, ez eta ere erabat protagonistena. Galdekarazten duen mundu bat da, hitzen zentzua dudazkoa duen mundu bat, testua zatikatzen duten zerrenden mundu bat edota isilpean testuan sartzen diren zerrenden mundu bat. Beste istorio batzuk azaleratzen dira, beste liburu batzuen oihartzunak badira, era ezberdinetako berrikuntzak bistaratzen dira (neologismoa, mitoen edo obren hibridazioa, figura historikoen edo pertsona kulturalen lesbiinizazioa, eta beste). Oroz gainera, hitza ematen die historiari iriakiak diren protagonistei (haurrak, militanteak, lesbiana transfugak, idazleak, eta abar); diskurtsoetako pisuzko esaldiak arintzen ditu; eta ustekabekoa, debekatua errateko asmoz hitzen potentzial semantikoa berpizten du.



**MONIQUE WITTIGI
BURUZKO TESIA**

plazaratu zuen Bourquek
2000. urtean.

■ **Lengoaia neutroa ez izanaren kontzientzia bizia bazuen eta hortik idazten zuen.**

Badirudi hizkera gardena dela, berinen kristalaren gisara. Errealitatean, forma material bat da, guti ala asko dentsoa edo zalua dena, izpirituak kontrolatzeko etengabeko gudu-zelaia dena. Botere-tuenak hizkeraren garrantzia eta elastizitatea –hau da, munduaren konplexutasuna izendatzeko duen gaitasuna– murrizten saiatzen dira, beren interesak sendo mantentzeko gisan. Wittigen ustez, idazleen betebeharra da bahiketa horietatik askatzea hizkera, batez ere duen ikusteko eta entzuteko gaitasuna berreskuratzeko, baita bitartekari gisa kokatzeko ere, hain zuzen, moldatua izan daitekeen materia delako hizkera.



**BERE FIKZIOZKO
OBRETAN ERREGIMEN
HETEROZOZIALAREKILAKO
ERRESISTENTZIA
BIDEAK ESPLORATZEN
DITU, BESTEAK BESTE,
HISTORIAREN JAKINTZATIK,
BORROKATIK, IHESETIK
EDO MUNDUAREN
BIRRASMATZETIK**

■ **Erraten zuen ikaragarri zaila zitzaiola emakumezko bati idaztea, justuki, hizkera ez delako berea.**

Wittigen arabera, soilik diskurtso nagusiaren –doxaren– bozgora-gailua edo papagaia izanez gero da erraza idaztea ikuspuntu minoritariotik, hau da, zapalduaren ikuspuntutik. Bestela, hizkuntzaren funtzionamenduaren, erabilpenen eta ondorioen azterketaren lan dorpeari lotu behar zaie idazlea; kategoriak, sintaxia galdekatu behar ditu. Bai ala bai, gizaki emeek ahal bezain urrun egon behar dute genero gramatikaletik eta genero ezaugarrietatik, horien funtzioa delako emakumezkoak sexuari mugatzea –subjektibotasuna ezabatzeko–.

■ **Pentsamendu heterozuzena etengabeaz ezabatzeko prozesuan zen, baita bere sorkuntza literarioan ere.**

Bai. Gogoratu behar da pentsamendu heterozuzena, Wittigek irudika-

tu moduan, diskurtso multzo bat dela zeinek justifikatzen duen talde sozial batzuek aprobetxatzea beste talde sozial batzuen lan azpiordaindua edo ez-ordaindua, baita beraien pertsona ere (denbora, zaintza, gorputza, eta beste). Bere fikziozko obretan erregimen heterosozialarekilako erresistentzia bideak esploratzen ditu, besteak beste, historiaren jakintzatik, borrokatik, ihesetik edo munduaren birrasmatzetik. Beren berezitasunez eta kokapen sozialaz kontzientzaren protagonisten bidez lortzen du hori. Figura mitikoez eta historikoez inspiratua izanik (Katarina handia, feministak, Ulises, Safo eta bere maitaleak, On Kixote, Dante, Virgile), pertsonaia horiek dentsitate eta anplitude kultural nabarmengarria zabaltzen dute. Wittigentzat, errebelde ereduak, historiaren ezagutza eta irudimenaren ustiapena ezinbestekoak dira kontzientzien osatzeko –bai norberarenak, bai kolektiboak–. Kontzientzia hartze horiek dira borroka iraultzaileen oinarrian.

■ **Hitzak asmatzen eta historiak bestelakotzen aritu da.**

Bi osagai ditu Wittigen poetikak: hizkuntza berraktibatzea eta literaturan inskribatzea. Hizkuntza bizirik mantentzeko bide bat da neologismo horien sortzea, izozte ideologikoak borrokatzeko helburuz harturikoak. Obra historikoen eguneratzeekin ere asmo bera du; historia literarioan kokatzen da, baina norabide berri bat emanez. Cervantesen nobelaren hautaketan ikusten dugu paralelotasun bat trufaturiko, umiliaturiko, ero gisa harturiko pertsona horren eta estigmatizaturiko lesbianen artean. On Kixotei bezala, lesbiana materialistei ere ezinjasanak zaizkie injustiziak, eta horien bukaera nahi dute. Gainera, Cervantesen eleberririk XVII. mendearen hasieran

kokatzen gaitu, Europak munduaren ikuspegi teologikoari bizkarra eman zion garaian, beste gizakien aurrean eta historiaren bidean giza erantzukizunari buruzko hausnarketa bat bideratzeko. Zapalduen emantzipazioari atxikitako ikuspuntu lesbianotik obra hori berrikusteko gogoia hortik ere irakurri behar da.

■ **Fikziozko literaturarekin zer bilatzen zuen pentsalariak?**

Fikziozko obrak idatziz, munduaz eta bere konplexutasunaz daukagun kontzientzia aberasten eta zorrotzen digute idazleek. Fikziozko obrak idatziz sartu zen literaturara Wittig. Hizkuntzek eta literaturak ikusketa berriei forma emateko dituzten potentzialtasunak esploratu ahal izan zituen horrela. Angeluitsuak eta hutsuneak atzemateko balio izan dio ere. Bere gogoeten eta analisisen kalitatean eragin du fikziozko literaturan aritu izanak. Gainera, hurbilketa bakarrean gelditu izana baino irakurleko zabalagoa hunkitzen da obra literarioak eta saiakerak proposatuz.



**FIKZIOZKO OBRAK
IDATZIZ, MUNDUAZ ETA
BERE KONPLEXUTASUNAZ
DAUKAGUN KONTZIENTZIA
ABERASTEN ETA
ZORROZTEN DIGUTE
IDAZLEEK**



**IKUSPEGI MINORITARIOEK
ERREGIMEN
HETEROOSZIALAREN
OINARRIAK ZALANTZAN
JARTZEN DITUZTENEZ,
EZ DA HARRIGARRIA HAIEN
ZENTSURA**

■ Nola esplikatatu Wittigen obra aberats eta berritzaileak hain aitortza eskasa jaso izana?

Ikuspegi minoritarioek erregimen heterosozialaren oinarriak zalantzan jartzen dituztenez, ez da harrigarria haien zentsura. Are mehatxagarriagoak dira, talentu handiko idazle argien partetik datozenean. Horrez gain, obra subertsiboak ez dira beti ongi etorriak, munduarekiko dugun harremana sakonki inarrostean digutelako. Kolpe hori absorbatzea ez da gauza arina.

■ Bere lehen obra izan zen *L'Opoponax*, 29 urte zituela idatzitakoa. Medicis premia jaso zuen, handizki sartuz literaturaren mundura. Aipamena jaso bazuen ere, liburuaren muina ez zen aipatu. Wittigek berak ohartarazi zuen: "Bi neska ttipiren arteko maitasun ipuina dugu (...), lesbianismoaren aspektu hori erabat isilean atxikia izan da". Nola esplikatzen duzu ez-ikusitako hori?

Frantziako garai hartako literaturari ez zen lesbianerik eta jendartean ere ez-ikusitakoak ziren. Isiltasun hori horrekin lotzen dut. Nola ikus dezakegu existitzen ez dena? Izendatua

ez dena? Gaur egun bezala, 1970eko hamarkadan ere ez zitzairen beraien iritzia galdetzen lesbianeiei. Ez genekien nor ziren ere ez, informazio horrek beraien karrera, eta beraz autonomia finantzarioa, arriskuan jartzen zuelako.

■ Obra guziak irakurri ez arren, iduritzen zait hari bat badela beren artean.

Pertsonaiak adinean eta esperientzian gora doaz, beren interesak eta borrokak eraldatzen dira. Begira diezaiegun Minuit argitaletxean publikaturiko nobelei: *L'opoponax* (1964) obran haurtzarora eta subjektibotasuna jorratzen dira, baita munduaren aurkikuntza ere, bere isiltasun eta hutsuneekin. *Les Guerrillères* (1969) obran, feminista gazte batzuk aurre egin behar diete diskurtso nagusituei, harreman sozialak aztertzen dituzte eta mundu hobe baten alde dabilta borrokan. *Le Corps lesbien*-en (1973) inter-subjektibotasuna dago arakaturik, sufrikarioan eta gozamenen bizitueriko maitasun topaketa baten bidez. Azkenik, *Virgile, non* (1985) obran militantismoaren erronkak eta mugak dira jorratuak, militante-bizian egindako inimizazio-bidai baten bidez.


Esplorazio formalei dagokionez, anitz nabarmendua izan da izenordeen inguruan egindako lana [sexuen arteko asimetria ezabatzeke erabakitako hautu gramatikalak, emakumezkoen klasearen diferentziazioa saihesten duten izenordeak erabiliz edota genero femininoa orokortuz sexu-identitatea ezabateraino]. Bestalde, ohartu gaitezke literaturari buruzko harremana geroz eta esplizituagoa duela, incognito harturiko testu-aipu batzuetatik (poesia liriko eta epikoa, mitologia, Biblia...) obra osoen adaptaziora (*Divina Commedia*, *On Kixote*) pasa delako denborarekin. Lesbianek munduan daukaten kokapena modu ludiko batez ilustratzeko egin du hori.



**NOLA IKUS DEZAKEGU
EXISTITZEN EZ DENA?
IZENDATUA EZ DENA?
GAUR EGUN BEZALA,
1970-EKO HAMARKADAN
ERE EZ ZITZAIEN BEREN
IRITZIA GALDETZEN
LESBIANEI**

■ *Virgil, non* obran, borroka feministari buruzko ikuspegi ezkorragoa du Wittigek. Lesbianen arteko komunitate horren egingarritasunean ez zuten gehiago sinesten?

Norberarekiko distantzia-hartze osasuntsu bat, umore anitz eta errealismo dosi bat kausitzen ditugu obra horretan. Danteren *Divina Commedia*-n inspiratua da, eta Wittig izeneko idazleen pertsonaia baten eta emakumezko heterossexualen arteko topaketa doi bat katastrofikoak eszenaratzen ditu, eta hori infernu den mundu heterosozialean. Ez dute egoeraren analisisa bera partekatzen, emakumezko heterossexualak behin baino gehiagotan pikutara bidaltzen dituzte Wittig izeneko eta bere asmoa –beren salbatzea–. Pertsonaia horien arteko solasaldiak bikainak iduritzen zaizkit, baita Wittig eta gidari duen Manastabal-en artekoa ere, bera bezala lesbiana materialista dena. Bai, emakumeen egoerari so pesimista batetik begiratzen dio. Aitzinamendurik ez da sendi: bortizkeria jasaten dute oraindik; etxeko lanak eta umeen ardura beren esku dira oraindik; lana eta familiaren artean beti korrika da-



biltza, etengabeko hautsi-mautsi arriskutsuetan, finantza segurtasuna bermatu ahal izateko. Batzuk askatasun desioaren eta horrek dakarren paria bizitzaren beldur-raren artean banaturik dira. Hala ere, esperantza ere kausitzen dugu. Manastabalen argitasunak eta engaiamendu heinak atentzioa pizten digute. Egoera gogorak izanik ere, aingeru lesbiana alegeren armadak orekatzten digu giroa.

► **Pentsamendu queer-a oraindik ez zela gorpuztua, Wittigek jadanik literatura queer-a zuela erran dezakegu?**

Queer teorian, mugimenduaz eta literaturaz dakidanetik, ezin dut queer-ari lotu Wittig. Hala ere, ohartzen naiz mugimendu horretako aktibista frantses gehienak Wittigen ondorengo gisa aldarrikatzen direla. Agian, termino hori definitu beharko genuke iritzia argia ukateko. Inportantea iduritzen zait azpimarratzea –gutiegi egiten dugulako– Wittigek duela lesbianismo materialista landu. Teoria

horrek digu izendatzen eta historian kokatzen herritar gehienon esplotazioa, opresioa eta jabetza. Wittigen ustez, erregimen horren bukaera generoaren aboliziotik lortuko da, ez eta generoen biderkatzetik; ez da performantziatik eta esanahien berrikusketatik etorriko, baina bai hitzen eta obren berraktibaziotik. Borroka konkretuak ditu lehentasun, ez ikusgarritasuna. Horregatik dio

genero-marka ezabatu behar dela, ez eta zabaldu.

► **50 urte beteko dira *Le corps lesbien* plazaratu zenetik. 1973. urterako titular subertsiboa, nola ez.**

Nire gustuko Wittigen obretan liliuragarriena eta originalena dugu. Gaiaren eta idazketaren planoak gehien hurbiltzen dituen obra da. Ez zuen merezitako harrera jaso publikatzerakoan. Maleruski, titularraren ausardiak, bere ironiak eta bere mamiak urrundu ditu irakurleak, bereganatu beharrean. Lesbianak biltzen dituen corpusik ez izana eta lesbianeia buruzko isiltasun izugarria ditugu obra hori plazaratzeko arrazoiaren artean. Ez izate bortitz horrek bultzatu zuen hizkuntzaren materia inbertitzera, gorpuzta inbertitzera, azaletik sakontasunetara, bere erritmo eta sekrezioekin, hitzez hitz guzia agerrarazteko. Wittigen obra guzien gisara, literaturaren territoria funditzeko asmoz dabilen Troiako zaldia kausitzen dugu *Le corps lesbien* liburuan. ●



**INPORTANTEA IDURITZEN
ZAIT AZPIMARRATZEA
–GUTIEGI EGITEN
DUGULAKO–
WITTIGEK DUELA
LESBIANISMO
MATERIALISTA LANDU**

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiako